

Kazetari multimediararen bidean

(Towards a multimedia journalist)

Arantzabal Arrieta, Iban

Goiena.net. Irizar Jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara

Jaso: 04.07.13
Onartu: 04.07.22

BIBLID [1137-4462 (2005), 11; 265-269]

Kazetari multimedia lortzearekin denboraren kudeaketa emankorra goa eta albistearen kalitatea bilatzen dira. Kazetariak gai gutxiago, baina sakonago landuko ditu: Internetarako motz, zehatz eta azkar; irratirako telefono konexioen bidez; telebistarako elkarrizketekin eta irudiekin; papereko astekarirako sakontasun handiagoarekin, argazkiekin eta testu garatuekin. Informazioa kudeatzea izango da etorkizuneko erronka, ez horrenbeste informazio bera medioetan errepikatzea. Informazioa batu, antolatuta eta egiazkotasuna bermatu beharko dira. Hori "kazetari multimedia"ren bidez, ez "multitarea kazetariekin".

Giltza-Hitzak: Kazetari multimedia. Goiena. Goiena.net. Sustatu.com.

Con la consecución del periodista multimedia se persigue una gestión del tiempo más productiva y calidad de información. El periodista tratará menos temas, pero éstos los tratará más en profundidad: para Internet, de forma breve, precisa y con presteza; para la radio, por medio de conexiones telefónicas; para la televisión, con entrevistas e imágenes; para el semanario en papel, más en profundidad, con fotos y textos desarrollados. El desafío del futuro será la gestión de la información, no tanto la repetición de la misma en distintos medios. Habrá de garantizarse la obtención de la información, su organización y su autenticidad. Esto se llevará a cabo por medio del "periodista multimedia", no con el "periodista multitarea".

Palabras Clave: Periodista multimedia. Goiena. Goiena.net. Sustatu.com.

Avec l'obtention du journaliste multimédia, on recherche une gestion du temps plus productive et de meilleure qualité d'information. Le journaliste traitera moins de thèmes, mais il les traitera plus en profondeur: pour Internet, de façon brève, précise et prompte; pour la radio, au moyen de connexions téléphoniques; pour la télévision, avec des entrevues et des images; pour l'hebdomadaire sur papier, plus en profondeur, avec des photos et des textes développés. Le défi de l'avenir sera la gestion de l'information, pas tellement la répétition de celle-ci dans différents moyens. Il faudra s'assurer de l'obtention de l'information, son organisation et son authenticité. Cela se fera au moyen du "journaliste multimédia", et non avec le "journaliste multidomaine".

Mots Clés: Journaliste multimédia. Goiena. Goiena.net. Sustatu.com.

Idatzi honetan irakurri daitekeena da Goiena Komunikazio Zerbitzuak koop. Enpresak nola lantzen duen informazioa. Goiena multimedia enpresa bat da aurrerago irakurri daitekeen moduan. Debagoiena du lan esparru Goienak.

Goienaren lana ulertzeko datu batzuk:

- Enpresaren izena Goiena komunikazio zerbitzuak
- Zabalpena Debagoiena
- Biztale kopurua 63,504 biztanle 9 herritan
- Langileak 60 lagun
- Hizkuntza Euskara
- Informazioa 4 "hizkuntzatan"

Debagoiena osatzen dute herriak, euskaldun kopurua eta elkarteak

	<i>Biztanleak</i>	<i>Euskaldunak</i>	<i>Elkarteak</i>
• Antzuola	1.911 biz.	%82,15	Idolaz
• Aramaio	1.345 biz.	%94,3	Txirritola
• Aretxabaleta	6.245 biz.	%78,78	Loramendi
• Arrasate	23.085 biz.	%72,17	AED
• Bergara	15.044 biz.	%81,9	Jardun
• Elgeta	975 biz.	%93,12	Goibeko
• Eskoriatza	3.902 biz.	%72,27	Axtroki
• Leintz-G	247 biz.	%91,1	Gureleku
• Oñati	10.750 biz.	%87,48	Laixan
• <i>Debagoiena</i>	<i>63.504 biz.</i>		

Herri guztietara eta biztanle kopuru guztiarengana heltzeko medio ezberdiak erabiltzen ditugu, hala nola: telebistan, GOITB; irratan, Arrasate Irratia; paper prentsan, Goienkaria eta Asteleheneko Goienkaria; sarean, goiena.net eta Sustatu.com. Hau dena martxan izateko 60 laguneko lantaldea dugu. Publizitate eta zerbitzuetatik jasotzen dugu diru sarreren %47,15 eta gainontzekoa Udal laguntza, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzatik.

BIDEAK HELBURURAKO

Asko saiatu gara komunikazio enpresa hau ahalik eta emankorrena izan dadin. Emankorra ahalik eta albiste gehien eta kalitatekoak ematerakoan. Noski, horrek badauka hedabide guztietan zaindu beharreko alorra ere, ekonomikoa.

Gasturik handiena soldatetan daukagu Goienan, eta era berean, gure kapitalik handiena humanoa da. Pertsonak dira enpresa hau aurrera ateratzen dutenak. Horregatik, daukagun kazetari kopuruak ahalik eta medio gehienetan ahalik eta kalitateko berri gehien egitea da erronka. Kazetari multimedia da erronka irabazteko bidea.

Minimora murriztu gura ditugu bidaiak eta kazetari bakarrak landu notizia telebista, irrati, papereko prentsa eta sarerako.

Aldaketa hauekin ikusten dugu kazetariak gai gutxiago izango dituela esku artean eta notizia bera gehiago lantzeko aukera eta denbora izan dezakeela. Bidaiak murrizten dira eta gaia sakonago aztertu dezake testua idazten edo bideo bat egiten hasi aurretik.

Ikastaroekin aldaketa egiten lagundu

Aldaketa guztiak dira zailak, eta eskatzen du hainbat ikastaro ematea. Guk esaterako eman dugu “Interneten zelan idatzi” titulutzat zuen pare bat eguneko ikastaroa. Ustea da medioetan eroso jardutea. Azken pausua izan da Interneten idazten erakustea eta editatzeko minimo batzuk ikastea.

Medio berriek abantailak dituzte: weblog

Orain medio berriak ari dira espazioa jaten eta Goienak beti pentsatu du aurrea hartu behar zaiela. Eskaera berriak daude informazioa jasotzerako orduan. Dударik gabe, weblog-a da fenomeno berri horietako bat.

Weblog-ak: Goiena.net eta Sustatu.com

Biak daude weblog (blog) deitzen den ereduarekin eginda. Azkartasuna bermatzen dute informatzerako orduan eta berehalakotasuna da armarik garrantzitsuenetarikoa bat. Kazetariari ez dio eskatzen informatikan aditua izatea eta lau kontzeptu basikorekin egin ditzake lehen pausoak sareko kazetaritzan.

Blog-ak informazio iturri interesgarri bihurtu dira, izan ere, partehartzaileak direnez beti garatu daiteke notizia (blog pertsonalak ere oso dira interesgarri). Kazetariak zein edozein herritarrek idatzi dezake weblog batean. Ez dugu esango edozein bihurtzen dela kazetari, baina bai asko direla edozein kazetari baino iaioago berriak ematen.

Medio tradizionalak ere weblog erabiltzaile

Konprobatua geratu da betiko hedabideek badutela edukia medio berri haue- tan emateko aukera. Hor dago *Libération* egunkariaren kasua, esaterako. Atzera geratu da paperetik hartutako *copy/paste* estiloa. Internetek beste idazteko modu bat eskatzen du, izan ere irakurketa ere berezia da.

Irakurketa digitala eta multimedia

Kontuan hartu behar dugu Interneten irakurtzea ez dela paperean irakurtzea bezain eroso. Interneten “eskaneatu” egiten da, goitik baino ez da begiratzen eta ez da artikulua osoa irakurtzen. Irakurriko bada, badago aukera lotura batzuk eman eta gaian sakontzeko, hala ere. Hori Interneten beste gakoetariko bat da, loturak egitea. Hori bai, notiziak egon behar du papererako eskatzen zaizkion kazetaritza oinarri guztiekin idatzita: gustuz, euskara onean, eta kontatzen duguna sinistuz. Noski, ez da sobera egongo Internet erabiltzaile aditua izatea eta lau kontzeptu beharrezkoak zortzi jakitea. Beti laguntzen du.

Ondo idatziz gero irakurketa errazten da

Ondo idaztean dago gakoa eta "Internet = multimedia" dela dioten jendearekin argi! Internet oso gertu dago, momentuz, prentsa idatzitik. Medio idatziarekin du parekotasun handiena. Goienan hori ulertu dugu eta multimedia izatea medio diferenteekin jokatuz landu dugu. Kazetari multimedia bai, baina medio diferenteetan ematen dituelako berriak, ez Interneten modu multimedian ematen dituelako. Askotan entzuten da Internet multimedia dela... baina eduki idatziarekin hasi eta hori ondo landuta ondo hasiko ginateke.

Kazetarien lana: ondo aukeratzea

Ginebra 2000: Lanaren Antolakuntzarako Erakunde Internazionalak zioen:

Kazetariak beharko dira. Lan egiteko modua aldatuko da eta baita lanerako medioak ere. Beharrezkoa izango da informazioa batzea, antolatzea, ondo idaztea eta egiazkotasuna bermatzea. Erredakzio mota hori beharko da erabiltzeko modukoa izan dadin informazioa.

Ez da, beraz, ezer berria. Gero eta gutxiago dira (edo gehiago?) prentsa aurrekoetan esana jaso eta takografo lana egiten duten kazetariak. Internet ezinbesteko baliabide izango da eta tresna hori ondo erabiltzen irakatsi beharko lukete Unibertsitatean. Kazetari digitalaren apustua egin beharko lukete oraingo doktoreek.

Medio bat idazteko modu bat

Konturatu behar gara telebistako gidoi batek ez duela balio irratirako edo prentsa idatzirako. Boladan dago paper prentsan idazten dena Intenetera bolkatu eta Interneteko kazetaritza egiten dela esatea. Hori ez da egia. Txapuza monumentalak da kazetaritza molde hori. Izatekotan, hemeroteca moduan funtziona dezake, baina weblog-ak daudenetik zaharkitua geratu da paper prentsan dagoena pasatzea Intenetera, besterik gabe. Balio du balio duenerako, baina hori ez da sareko kazetaritza egitea.

Lan molde berria sortu da

Aurrean esandako moduan, gaietan eta edukietan zentratu beharreko kazetariak izango dira etorkizuna. Eta gainera, (espero dugu Unibertsitateetik preparamatuta etorriko direla) hainbat mediotan batera jardun beharko dute.

Iñaki Rojok baquia.com agerkarian esan zuen: *Aro digitalak sortu du langile figura berri bat. (esklaboa, netslave) estresatutako pertsona bat makina bati itsatsita. Pizza jalea eta bizitzaz beste egiteko erritmoarekin lan egiten duena. "Mi nombre es Kunta Kinte"* deituriko artikuluan idatzi zuen zati hori.

Ezin gara nahastu, multimedia ez da multitarea. Helburua espezializazioa da eta balantza horixe da Goienan dugun erroka. Lan banaketa beste modu batera egitea, kazetari multimediak sortuz multitarean erori gabe eta kalitatezko informazioa eskaini. Ez da erroka makala!